

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 28/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa. Akatsak zuzentzea abenduaren 30eko 543/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez onetsi baitzen irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei, garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako urteko ekintza puntualak finantzatzeko xedez, dirulaguntzak lehiaketa bidez emateko 2020ko deialdia

2019ko abenduaren 30ean, Diputatu Nagusiak 543/2019 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez onetsi baitzen irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei, garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako urteko ekintza puntualak finantzatzeko xedez, dirulaguntzak lehiaketa bidez emateko 2020ko deialdia. Foru Dekretuarekin batera doan eranskinean eta Dekretuan hainbat akats ikusi dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea abenduaren 30eko 543/2019 Foru Dekretuaren hirugarren xedapena, honela:

Honako hau dioen lekuan:

Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontu proiektuaren 02.5.01 93.00 4.8.1.00.02 "Ekintza puntualen deialdia." eta 02.5.01 93.00 7.8.1.00.02 "Ekintza puntualen deialdia. Deialdi berria" partidetatik (55.000 eta 35.000 euroko kreditua izatea kalkulatzeko da) ordainduko dira. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebatzen den unean. Honela banatuko da:

Hau esan behar du:

Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontu proiektuaren 02.5.01 93.00 4.8.1.00.02 "Ekintza puntualen deialdia." eta 02.5.01 93.00 7.8.1.00.02 "Ekintza puntualen deialdia." partidetatik (55.000 eta 35.000 euroko kreditua izatea kalkulatzeko da) ordainduko dira. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebatzen den unean. Honela banatuko da:

Bigarrena. Zuzentzea abenduaren 30eko 543/2019 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapena, honela:

Honako hau dioen lekuan:

Laguntza eman ala ukatzeko ebazpena ALHAO argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutako moduetakoren batean. Hori izango da jakinarazteko bidea sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetzaren sustatzeko 2020. urtean dirulaguntzak eskatu dituzten erakundeei.

Hau esan behar du:

Laguntza eman ala ukatzeko ebazpena ALHAO argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutako moduetakoren batean. Hori izango da jakinarazteko bidea garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako urteko ekintza puntualak sustatzeko 2020. urtean dirulaguntzak eskatu dituzten erakundeei.

Hirugarrena. Zuzentzea abenduaren 30eko 543/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 15. artikulua, honela:

Honako hau dioen lekuan:

Diruz lagundutako erakundeak diruz lagundutako jarduera bukatutakoan jardueraren deskripzio eta finantza txostena bidaliko du; hain zuzen ere, proiektua bukatu eta 60 egun igaro baino lehen. Proiektuaren hasiera eguna erakundeak adierazitakoa izango da.

Beti ere, proiektuaren gastuen azken justifikazioaren aurkezpenerako, hau da, diruz lagundu daitekeen aurrekontu guztia aurkezteko, epe bat izango da, eta epe hori 2020ko abenduaren 15ean bukatuko da.

Hau esan behar du:

Beti ere, proiektuaren gastuen azken justifikazioaren aurkezpenerako, hau da, diruz lagundu daitekeen aurrekontu guztia aurkezteko, epe bat izango da, eta epe hori 2020ko abenduaren 15ean bukatuko da.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

NEREA MELGOSA VEGA